

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko urtarrilak 10 · 1338 zenbakia

FAMILIA

ARRAKASTAREN GAKOA



MERKEALDIA

2MÓ 189€
lehen 229€

**erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboak**

Kontuz! ez erabili kontaktuzko erretinak.



MULTIÓPTICAS

M.ES. 10/09

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com





**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

Ane Mendia
970 kol. zkia.



INDIBA TERAPIAK
ARTIKULAZIO TENPORO-
MANDIBULARREKO ARAZOAK
TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
K-STRETCH KLASEAK BAKARKA
HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA
OROKORREAN
ERGONOMIA HOBETZEKO KLASE
PERTSONALIZATUAK



Arragueta, 20
943 530642

ane_mendia@hotmail.com

zarelakogara

EGIN ZAITEZ BAZKIDE


URTEKO KUOTA

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatua	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Norberak nahi duen kopurua (horri ere errenta aitortuena %30 itzuliko zaio)			

eta kitto!
euskara elkarte

Tel. 943 20 09 18 elkartea@etakitto.eu
www.etakitto.eu

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

'Zazpi' dokumentala Mendifilm jaialdian proiektatzea garaipena zen Mikel Lizarralderentzat. Ba, azkenean, hori bakarrik ez eta Euskarazko Pelikula Onenaren saria jaso zuen bertan. Lana egiteko Pello Osoro, Maite Arroita jauregi eta Haritz Lete herrikideak izan ditu bidelagun.



ARGITARATZAILEA

...eta kितto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kितto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Hector Montero

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kितto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



(*...eta kितto! k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Galtzea da gorrotatzen duguna: 100 euro galtzean hartzen dugun mina askoz handiagoa da 100 euro irabaztean sentitzen dugun poza baino. Horregatik besarkatzen dituzte txiroenek askotan onurarik ez dakarkien jarrera politikoak. Zertarako aldatu? Hobe da daukagunari eustea! Ingelesekin dioten bezala, “apurtuta ez badago, ez konpondu”. Oso behartsuak direnak ezin dira zoriontsuak izan, baina gehiago irabazteak ematen dizun zoriontasunak maila bateraino funtzionatzen du bakarrik. Zure beharrak asetuta badituzu, hortik aurrerako diru kantitateak ez du zertan zoriontsuago bihurtzen bat.

LEWIS DARTNELL, biologoa

Herrialde guztiak berdinak baldin bagara zeozertan, besteengandik oso desberdinak garela uste izatean da. Gu besteak modukoak ez garela pentsatzen badugu ere, guztiok zirko bera dugu muntatuta. Azken aldirian, gainera, badirudi haize zoro batek erasotu digula guztioi, mundua berehala akabatuko dela pentsatzera eramaten gaituena. Ez hori bakarrik, akabera hori bakoitzak bere herrialdean hasiko dela ikusten baitu, martetarren pelikuletan beti AEB-etara heltzen ziren bezala.

IÑIGO DOMINGUEZ, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PATXI INFARNUKO / INFARNUKO PATXI → Pertsonai mitologikoa, gaizkiaren eredu. Deabrua. “Hónek eibartarrok infarnuko Patxi bera baiño gorrixaguak dirala pentsatzen juat”.

PATXO → Musua, pa txikia. Ume berbetan erabiltzen da batipat, baina bestelakoetan ere bai. “Ixillian patxua emon detsa”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 10
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 11
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 12
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ASTELEHENA 13
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 14
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 15
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 16
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 17
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Mari Carmen Zuazua Uribe.**
95 urte. 2024-12-27.
- **Arceli Rocha Avalue.**
89 urte. 2024-12-31.
- **Miren Azkarraga Iarritu.**
101 urte. 2024-12-31.
- **Francisco Perez Daira.**
95 urte. 2025-01-01.
- **Luis Sanchez Diaz.**
90 urte. 2025-01-01.
- **Maritxu Unanue Salaberria.**
96 urte. 2025-01-02.
- **Francisco Muñoz Perez.**
81 urte. 2025-01-04.
- **Jose Alberto San Martin Zubizarreta.**
72 urte. 2025-01-05.
- **Manuel Zabala Arriola.**
91 urte. 2025-01-05.
- **Camilo Goy Lopez.**
87 urte. 2025-01-05.
- **Jose Antonio Aristondo Gojenola.**
81 urte. 2025-01-05.
- **Ricardo Agirregomezkorta Korta.**
75 urte. 2025-01-06.
- **Mercedes Espinosa Espinosa.**
101 urte. 2025-01-07.



Hiru Erregeek magiaz betetako kabalgata egin zuten, opariak banatu aurretik

Aurten ere Eibarrera etorri dira Hiru Errege Magoak, Gabonetako oporrrak amaitu aurretik azken opariak banatzeko. Gau magikoaren aurretik, arratsaldean ederto pasatu zuten Ipurua kiroldegian, Eibarko dantza eta gimnasia talde ezberdinek eskainitako ikuskizunean. Hori amaituta, Lambretta Klubekoek Untzagarraino eraman zituzten, kalejira egiteko.

Han zain zegoen karrozara igota, herrian zehar kalejira egin zuten, Eibarko Musika Bandak, pajeek eta hartz erraldoiek lagunduta. Eta, Untzagara bueltan, udaletxe barruan hartu zituzten haurren azken orduko gutunak. Dantza eta kabalgataren argazkiak www.etakitto.eus webgunean daude ikusgai (Argazkia: Eibarko Udala).

Otsailerako ikastaro eskaintza zabala prestatu du Eibarko KZguneak

Eibarko KZguneak prest dauka otsailerako ikastaroen eskaintza. Gogorarazi dutenez, ikastaroetan izena eman nahi dutenek aukera ezberdinak dituzte: KZgunera joan daiteke, aldeztatik hitzordua eskatuta, 943 023 637 telefono zenbakian edo KZgunearen web orrian (www.kzgunea.eus), edo izena telefono edo Internet bidez eman daiteke, KZguneako erabiltzaile izanez gero. Eibarko KZgunea Portalea Kultur Etxeko 2. pisuan dago, eta astelehenetik barixakura zabalitzen dute, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara. Informazio gehiagorako, KZgunearen web orrian ikastaro guztien katalogoa kontsultatu daiteke.



Etxegabetasunarekin amaitu nahi duen END plataformak asanblada irekia deitu du

Etxegabetasunaren arazoari konponbidea emateko bokazioa duen END plataformak asanblada irekia deitu du eguenerako (urtarrilak 16), 18:00etatik 20:00etara Arrate Kultur Elkartean. Azpimarratu dutenez, “gonbidapen honek ez zaitu ezertan konprometitzen, zuk ere parte har dezakezun Batzarrean parte hartu besterik ez duzu egin beharko, eta bertan elkartearen estatutu berriak

eta Zuzendaritza Batzordea bozkatuko ditugu. Ez kezkatu, oso erraza da eta ongi etorria izango zara. Argi eta garbi azalduko dizugu dena batzarrean bertan. Kanean lo egitera behartuta dauden pertsonen egoerak min ematen badizu, eta errealtate hori aldatzeko zure ekarpena egin nahi baduzu, hurbil zaitez hilaren 16an egingo den asanbladara. Ez zara damutuko”.

AUTUAN

URKI FUTBOL KLUBAREN GABONETAKO ZOZKETAN SARITUTAKO ZENBAKIAK

Urki futbol klubak Gabonetan egindako zozketan, hauek izan dira zenbaki saridunak: lehen saria 2.480 zenbakiari egokitu zaio, bigarrena 0014 zenbakiari, eta hirugarrena 1.840 zenbakiari. Horietako bat izanez gero, zozketako arduradunekin harremanetan jaretzea eskatu dute, saria jasotzeko.



2025ean ODOLA EMATERA JOATEKO EGUTEGIA JAKINARAZI DU ODOL-EMAILEN ELKARTEAK

Odol-emaileen Elkarteak Eibarren duen delegazioak hasi berri den urterako egutegia prest dauka, eta atzo izan zen odola ematera joateko lehen eguna. Orain arteko moduan, odola eman nahi duenak Untzagako gizarte etxera joan beharko da, jarraian zehaztutako egunetan, 16:50etik 20:50era: urtarrilak 23; otsailak 13 eta 27; martxoak 13 eta 27, apirilak 10 eta 24; maiatzak 8 eta 22; ekainak 12 eta 26; uztailak 10 eta 24; abuztuak 14 eta 28; irailak 11 eta 25; urriak 9 eta 23; azaroak 13 eta 27; eta abenduak 11.



Presoen eskubideen alde bihar Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia

Urteko azken egunean Untzagan egindako ekitaldiarekin agurtu zuen urtea Eibarko Sarek, eta gaur arte Topalekuan ikus daitekeen presoen pegatina erakusketa antolatu du, hori guztia bihar Bilbon egingo den manifestazioaren atarian, herritarrak parte hartzea deituz. Presoen eskubideen aldeko manifestazio nazionala 17:00etan hasiko da, La Casillan, *Behin Betiko. Bakea. Konponbidea. Elkarbizitza* goiburuari jarraituta. Saretik adierazi dutenez, mobilizazioa “giza eskubideen aldeko aldarria

da. Horrela bakarrik uler daitezke Sare bezalako elkarte batek, urtez urte, dozenaka mila pertsonak kaleak bete eta bidegabekeriarik gabeko bakea eskatzea. Euskal presoen eskubideak berriz aldarrikatzea eta indarkeriaren biktimak guztiei zor zaien errespetua eskatzea izango dira egun honetan bidelagun”. Horrekin batera, *Bizumkada Nazionala* abiatu dute. Dirua eman nahi duenak www.sare.eus/bizumkada webgunean sartuta egin dezake dohaintza, Bizum edo txartelarekin.

Bihar izango da Gureak lantegiko beharginentzat urtero egiten den bazkaria

Urteroko martxan, bihar egingo dute urteroko bazkaria Gureak lantegikoek, Urkizu inguruko elkarte gastronomikoei (Urkusu-Gain, Erdi Bana, Jaiki, Dorrepe, Edozer, Denon Sahatsa eta Bekuak) osatzen duten Auzokoak elkarteak antolatuta. Bapo bazkaltzeaz gain, opariak eta sorpresak egingo dira.





Hilma af Klint artistari buruzko bideo-forum saioa egingo da martitzenean Andretxean

Martitzenean (hilak 14) egingo da Emakumeen Istorioak urteko lehen bideo-forum saioa, 18:00etatik 19:30era Andretxean. Pagatxa emakumeen taldeak Berdintasuna-Andretxearekin elkarlanean antolatzen duen saioan Hilma af Klint (1862-1944) suediar artistari buruzko bideoa ikusi eta, jarraian, horri buruzko solasaldia egingo dute. Beti bezala, interesa duten guztientzat atek zabalik egongo dira, eta ez da sarrerarik ordaindu behar. Hilma af Klint

arte abstraktuaren aitzindarietako bat izan zen. Artean prestakuntza akademikoa jaso zuten emakume europarren lehen belaunaldiko kide izan zen, eta ikasketak Suediako Arteen Errege Akademian egin zituen, eta diru-laguntza baten bidez, estudioa ere izan zuen Stockholm erdiko Kungstraedgaarden auzo bohemioan. Hala ere, bere koadroak ez ziren 1985. urtera arte ezagutu, artistak berak eskatu baitzuen bera hil eta 20 urte itxaroteko.

Aurreko urtean baino langabetu gehiagorekin amaitu dugu 2024. urtea

Iaz baino langabezia-tasa handiagoarekin amaitu dugu urtea Eibarren. Abenduko datuen arabera, 1.556 lagun zeuden langabezian Eibarren, eta langabezia-tasa %12,42koa zen. Horrela, azarotik abendura bitartean langabezia gora egin du herrian (azaroan 1.519 lagun zeuden langabezian, eta langabezia-tasa %12,12koa zen). Eskualdeko herri guztietako datuei

begira, abenduko langabezia-tasa %10,55ekoa zen. Debak jarraitzen du langabezia-tasarik baxuena izaten (%6,25), eta Soraluzek dauka tasarik altuena (%13,27). Hain zuzen ere, Eibar eta Soraluze izan ezik, gainontzeko herri guztietan langabezia-tasa %10etik beherakoa da. Debabarrenean 2.729 langabetu zeuden 2024ko abenduan (%10,55).



Bihar jokatuko da Alfak antolatu duen jostintza lehiaketaren finala, Balenciaga Museoa

Josteko makinengatik ezaguna den Alfak antolatua, Alfa Style Jostintzako Lehiaketa Nazionalaren lehen edizioa dago jokoan, eta azken fasea bihar izango da, Getariko Balenciaga Museoa. Lehenengoz antolatu duten ekimenak “Espainia osoko jostunen eta diseinatzaileen sormen-talentua saritu nahi du”. Lehen edizio honen irabazleak 1.500 euroko saria, eta prestazio handiko Alfa josteko makina bat jasoko ditu. Antolatzaileen berbetan, “gainera, finalista guztiek modaren eta jostintzaren industriako aditu ezagunen aurrean euren lana aurkezteko aukera izango dute. Alde horretatik, plataforma paregabea eskaintzen zaie haien talentua nabarmentzeko”. Urriaren 5ean hasi zen lehiaketa, Eibarko Alfa Museoa, eta beste faseak Gueñesen (Basque Bio Design Center Biodiseinu eta Teknologia Zentroan), Malagan (Modaren eta Automobilaren Museoa), Alcoyn (AITEK Ehungintzako Ikerketa Institutuan) eta Madrilan (IADE Diseinu-Eskolan) jokatuko dira.



Urtarrilaren 18rako manifestazioa eta bazkaria antolatu dituzte pentsiodunek, 7 urteko borroka ospatzeko

Hil honetan beteko ditu zazpi urte Debabarreneko pentsiodunen borroka, eta astero pentsio duin eta publikoen alde mobilizatzen diren eibartarrek modu berezian ospatu nahi dute urtemuga. Hori dela eta, urtarrilaren 18rako eskualde mailako manifestazioa deitu dute, Untzagatik abiatuta, eta ondoren bazkaria egingo dute, 14:00etan Errebal Plazan. Bazkaltzeko entsalada mistoa, paella, postrea, kafea eta pastak egongo dira, eta tiketak Guridi tabernan daude salgai, 15 eurotan. Debabarreneko pentsionistek herritar guztiak parte hartzera deitu ditu.

Euskal kantuak ikasteko saioak Kulturean

Astlehenean itzuliko dira Arrate Kultur Elkartearen eskutik egiten diren kantu saio irekiak, 19:00etan elkartearen lokaletan. Bertaratzen direnek euskal kanta tradizionalak ikasiko dituzte, ondo pasatzeaz gain. Antolatzaileek diotenez, “doinu eta letrak ezagutu, ikasi eta abestuz gozatzeko lagunarteko saioa” izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero 638 284 912 telefono zenbakira deitu daiteke.

Mugikortasunari buruzko galdetegia zabaldu du Udalak

Gure herrian mugikortasuna hobetzeko asmoz, Eibarko Udala Hiri-Mugikortasun Plan Jasangarria idazten ari da, eta gaur gaurkoz hasierako diagnostia, datu-analisiak, ibilgailu-parkea, zirkulazioa eta beste hainbat dira aztergaiak. Ikuspegi teknikoaz gain, herritarren ideiak, kezak eta ekarpenak gehitu nahi zaizkio planari, eta horretarako hainbat parte-hartze aukera edo kanal eskainiko dituzte. Adierazi dutenez, “lehenik eta behin, azaroan familiei zuzendutako formulario tekniko bat bidalitzen 2.000 etxetara, herritarren ohituren berri izan ondoren, eibartarren mugikortasun-ohituren mapa bat sortzeko. Horrekin batera, <https://udaloink.ibatuz.com/index.php/384793/lang-es> estekan eskuragarri dagoen galdeketa prestatu da”. Interneten eskuragarri ipintzeaz gain, etxeetara paperean bidali dute galdetegi berbera. Behin beteta, honako tokietan ipini dituzten kutxetan laga ahal izango

da, urtarrilaren 26ra arte: Pegora, Portalea, Juan San Martin Udal Liburutegia, Ipurua, Unbe eta Orbea kiroldegiak, jubilatuetxeak, Andretxea eta Indianokua gaztelekua.

Azkenik, fase hori ixteko, otsailaren 11n, 18:30ean, Errebal Plazan (A gelan) aurrez aurreko saio bat egingo da, herritar guztiei zabalik. Tailer horretan Eibarrek dituen mugikortasun-arazoak mahaigaineratu ahal izango dira. Umezaintza-zerbitzua eskainiko da (4-10 urte bitarteko umeak), aldeztatik 688 73 61 36 telefono-zenbakira deituta.

Planaren lehen bi faseak egiteko (datuak hartu, egungo egoera aztertu eta diagnostia egin), Udalak dirulaguntzak jaso ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Sailetik eta Energiaren Euskal Erakundetik. Proiektu honi buruzko informazio eta aurrerapen guztiak aldiro-aldiro joango dira argitaratzen Udalaren webguneko Ingurumen atalean.



Telefonistak telefono-zentralitan (1953). Sasoi hartan San Andres eliza parean zegoen, Ifar Kaleren hasieran. PLAZAOLA

Arrateko bidetik gora igotzen zuten belarra edo karga handiko produktuak eta gero gurdiekin andabideetatik behera. Lehenengo autoak Orbe eta Biriñao baserrietako jabeek ekarri zituztela uste da. Eta lehenengo telefonoak: Orbek eta Sagarbitzak. Pistak egin baino lehenago bazuten telefonoa.

Lehenengo auto eta telefonoak bailaran

Emilio Azurmendi Agirre Sagarbitza
(1936 – 2013)



Gorosta bailarako Sagarbitza (Sagarbieta) baserrian eman zuen bizi osoa. Etnografia gaiak oso gustuko izan zituen eta interes handia izan zuen baserrietako antzinako bizimoduarekin zerikusia duten tresnak, lexikoa eta abarrak zaindu eta gordetzeko. Eibarko baserriarren alkate ere izan zen hainbat urtetan eta oso ondo ezagutzen zituen, bai Eibarko mendi-basoak, bai Eibarko baserriarren gorabeherak. Eibarko euskara, toponimia eta etnografia jasotzeko hainbat proiektutarako lekukotasuna eman zuen.

Emilio Azurmendi grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

(...) Kotxerik bape ez zeuan orduan. Orduan ez zeuan kotxerik. Ta, holan, lastua edo generua ganuentzako ekarri bihar bazan, pentsua ta hori zerori, Arrate kamiñotik altzau gora, hara, ta gero burdixakin behera ganauekin bajatzen genduan. Hor zihar igotzen eben kanbioiak — orduan kanbioi modukuak —, ta bozinia jo, ta bozinia [joten zian], ta jakiñian egoten giñan ta, ba, ganauakin urten ta... Holaxe izeten zan. [Lehenengo Land Rover-a zeñiek ekarri zeban?] Lehenengo Land Rover-a, lehenengo-lehenengua —igual azartauko neuke— Orbe ta Biriñao izango zian Eibarren. [Klaro, horrek behealdian, ez? (...)] Bai. Horrek izango zian lehenengo Land Rover-ak. Ta lehenengo telefonua, lehenenguetakua, Orbe izango zan, ta bigarrena neu seguramente. (...) [Telefonua ze urtetan gitxi gorabehera?] Etxata akordatzen. Bueno...! Asko, asko (...)

BEHERAPENAK

E I B A R R E N

#EibarrenBadakagu

xAre
beherapenak

Zuloagatarren, 1
943 536 764

sareeibar
www.xareibar.com

Ibarkurutze, 6
info@irritsamoda.com 943 12 71 06

iRRITSA

BEHERAPENAK

LENTZERIA MERTZERIA
TXUKUNA
943 621 308
Eulojio Garate, 1

%20 eta %30-eko **BEHERAPENAK**

umea
beherapenak

Errebal, 16 943 20 31 64

T. Etxebarria, 19
943 20 76 51
cedrymoda@gmail.com
azken aukerak

Cedry
beherapenetan

Kopina %50era
arteko
BEHERAPENAK

San Agustin, 3 943 20 41 81

#EibarrenBadakagu

“Ideiak ordenatzeak eta norbere bizipenei hitzak jartzeak asko laguntzen du”

MIKEL LIZARRALDE • Zazpi dokumentalaren egilea



300 kilometro inguru eta zazpi tontor, Euskal Herriko probintzia bakoitzeko altuenak, bere historia kontatzeko. Mikel Lizarralderen historia. Orain dela ia zazpi urte esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten eta bizitza irauli zitzaion eibartarraren historia. Mendian igarri zuen gertatzen zitzaiona eta mendian aurkitu du, besteak beste, gertatzen zaion horri aurre egiteko tokia.

Mikel Lizarralde herrikideez inguratu da *Zazpi* dokumentala egiteko. Pello Osoro izan du bidailagun (baita Iñaki Osoro eta beste lagunen bat ere tarteka) eta irudiak grabatzen, Maite Arroita jauregik jarri die musika irudiei eta Haritz Letek landu du ikus-entzunezkoaren soinua. Lan berezi honek sari bikoitza jaso du: lehena, Mendifilm jaialdian proiektatzeko aukeratua izatea; eta bigarrena, jaialdian bertan Euskarazko Pelikula Onenaren Saria jasotzea.

Orain dela ia sei urte egin genizun elkarrizketako lehen galderarekin hasiko dugu hau ere: hemen eta orain, zer moduz zaude?

Hemen eta orain, ondo nago. Bihar ez dakit eta ez diot arretarik ematen ere, baina hemen eta orain ondo. Horrekin jada pozik.

Eta azkeneko asteetan dokumentalaren proiektzioarekin eta saria jasotzearekin bizi izan duzunarekin?

Iñaki Peña Bandres medikuak eta ‘Mendian hil, hirian hil’ lanarekin Mendifilm jaialdian Euskarazko Pelikula Onenaren Saria jaso zuenak esan zidan Mendifilmen parte hartzea 8.000 metroko mendi batera igotzearen parekoa zela. Beraz, bertan parte hartzea izan zen nire

zortzimilakoa. Parte hartzea ikaragarria izan bazen, irabaztea are gehiago. Parte hartzea ere ez nuen espero. Nire mugarrria dokumentala aurkeztea zen, kitto, hor amaitzen zen. Uste nuen Mendifilmekoek ezetz esango zidatela eta dokumentalak YouTubean amaituko zuela. Orduan, demasa izan da hau guztia, oso esperientzia polita.

2022an aurkeztu zenuen Zazpi proiektua eta hiru fase izango zituela aipatu zenuen (kontakizuna, bidaia eta dokumentala). Nola joan da prozesu guztia?

Ordenaren faktoreen kontuarekin beti moldatu naiz gaizki. Hasieran elkarrizketa batzuk egin nituen ‘Nire erreferenteak’ izendatu nuen proiektuan, eta hor konturatu nintzen beste batzuen historia kontatzen ari nintzela, baina agian lehenik eta behin nirea kontatu behar nuela. Horrela eman nion hasiera Zazpi proiektuari, horrela lotu nuen ideia. Ez nuen neure burua kamera baten aurrean geldirik nire istorioa kontatzen ikusten; beraz, beste modu batean egiten saiatu nintzen. Gainera, ikusi nuen kontatzeko nituen gauzak oso ezberdinak zirela euren artean. Orduan, hasieran pentsatu nuen bideo labur batzuk egitea gauza zehatz batzuk jorratzeko (gaixotasuna, diagnostikoa, gerora etorri zena...), eta gero horrekin guztiarekin laburpen



Familiarekin batera jaso zuen Euskarazko Pelikula Onenaren saria Mendifilm jaialdian. MENDIFILM JAIALDIA

bat egitea, dokumental moduan. Politena hori geldituko da. Pellok ganoraz grabatu eta montatu du, Maitek oso musika polita jarri dio, eta Haritzek soinu-diseinua egin eta homogeneizatu egin du, emaitza are politagoa izateko. Horretan guztian ere faktoreen ordenarekin txarto. Izan ere, lehenik bidaia egin genuen irudiak grabatuz eta handik urtebetera egin nuen gidoia. Ez dakit zergatik, agian beldur eszenikoagatik. Pentsatzen nuen horrek ez zuela inongo interesik edukiko eta apaltasun horrekin egin nuen horrela.

Pellorekin egindako bidaia nolakoa izan zen?

Lehenik Eibar inguruan bideo batzuk grabatu nituen kontakizuna egiteko, eta gero bidaia egin genuen. Bidaia kontakizuna lotzen joateko aitzakia bezala sortu zen. Marketing mundukoek lehenengo gure tranpak sortzen ditugu eta gero narratibak sortu hori pixka bat janzteko. Bidaiaren ideia Euskal Herriko probintzia bakoitzeko mendi-tontor altuena lotuko zuen bidea egitea zen. Hasierako asmoa dena aldi batean egitea zen, baina etapa batean ez nuen egin beharreko guztia egin (autokarabana ikusi nuen eta bertan geldituko nintzela erabaki nuen). Beraz, lehenengo saio batean

“Ez dut jendea Zegama-Aizkorri edo horrelako proiektu bat egiten jarri nahi, bakoitzak funtzionatzen diona egin dezala bizitzako ustekabeei aurre egiteko”

bederatzi egun egin genituen, eta handik lau hilabetera azkenengo bi egunak. Tarte hori lagatzeak, kasualitatez, azken txanpa horretan elurra botatzea ekarri zuen eta Orhi eta Hiru Erregeen Mahaia elurtuta igaro genituen, irudi ikusgarriak lortuz. Beste modu batean amaitzeko aukera eman zidan eta, sinbolismoak asko gustatzen zaizkidanez (familia etorri zen...), politagoa izan zen.

Nolako bidelaguna izan zen Pello Osoro?

Bidaia Pellorekin eta Iñaki aitarekin egin nuen, bera izan baitzen laguntzailea. Autokarabanarekin gurekin etorri zen eta irteera guztietan, tarteko geldialdietan eta amaieretan zain izaten genuen janariarekin eta abar.

Elkarrizketa osoa eta
BIDEOA



Asko erraztu zidan bidaia. Pellok ere berdin. Ez genekien non grabatuko genuen, beraz, orri zuri baten aurrean geunden biok. Bere esku gelditu zen non grabatu eta emaitza polita gelditu da. Pello aspertu egin zela uste dut. Azkenean, goi-mailako triatloilaria da eta oso azkar ez doan tipo batekin joan zen. Etapa amaitzen genuenean, bizikletarekin arrabolan ibiltzen zen (barreak). **Maite Arroitauregi eta Haritz Lete ere aipatu dituzu. Ez da ba kasualitatea izango denak eibartarrak izatea, ala?**

Maite proiektuan egoteko arrazoia ez da bakarrik lan hau egiten oso ona dela, Maria emaztearen lehengusina ere badelako. Joera handia dut ingurukoengana joateko gauzak eskatzera, baldin eta haiekin ondo joango den segurtasuna badut. Adibidez, azken bi etapetan Fernando Errekalde mendiko-gida, Mariaren lehengusua eta eskolako kidea, eta horrelako saltsatan ibiltzea gustatzen zaion Fran Compostizo kuadrillako laguna ere etorri ziren. Ekarpenak egiten dizkidan jendea inguruan edukitzea gustatzen zait. Bestalde, Haritz Maiteren gomendioz sartu zen proiektuan. Dokumentalak soinu-diseinu ona behar zuela eta Haritzekin egitea aholkatu zidan. Gainera, ezagutzen nuen, bikain! Proiektu oso eibartarra gelditu dela? Bai. Seguru aski, Eibartik kanpora eibartarra goa naiz Eibarren baino, baina horrela suertatu da, ez da nahita bilatutako zerbait. Dena dela, koinatuak Kalamua edo Eibar inguruko beste mendirik dokumentalean agertzen ez dela aurpegiatzen dit. **‘Nire erreferenteak’ proiektuan beste lagun batzuen historiak entzun ahal izan genituen, baina oraingoan zuk azaleratu duzu zurea. Nola sentitu zara ariketa hori egiten?**

Sarri esaten dut kontakizuna zuk zeuk zuzentzen baduzu, horrek abantailak dituela: fokua zuk nahi duzun tokietan jartzen duzula, eta zuk nahi ez duzun tokietatik aldendu egiten duzula. Bestalde, horrelako kontakizun bat lotzeak buruan ideiak antolatzen eta narratiba sortzen laguntzen dit. Batzuetan, bizitzan horrelako zerbait gertatzen zaizunean, ez dut esango sinistu behar dituzunik, baina ideiak ordenatzeak eta norbere bizipenei



hitzak jartzeak asko laguntzen du. Nire buruari ez diot erreferente edo eredu dedituko, lotsa ematen didalako eta ez dudalako jendeak apaiza pulpitutik berbetan bezala ikustea. Ez dut inongo leziarik inori emateko. Kontatzen dudana bateren bati balio badio, oso ondo, eta ez badio balio, ere bai. Ez dut jendea Zegama-Aizkorri edo horrelako proiektu bat egiten jarri nahi, bakoitzak berari funtzionatzen diona egin dezala bizitzako ustekabeei aurre egiteko. Badirudi zuriaren eta beltzaren artean aukeratzen gabiltzala etengabe, eta dena da grisa. Beti besteena kritikatzeko gabiltza eta bakoitzak bere moduak ditu aurrera egiteko. Ahal duen moduan egiten du aurrera. Nik modu honetan eman diot forma bizi izan dudanari eta horrela egiten diot aurre, izena ematen eta hitza jartzen. Horrek laguntzen dit dena barneratzen. Izan ere, askotan, neurologoaren kontsultatik irteten zarenean, gauza batzuk digeritu egin behar dituzu. Oso ondo aurkitzen zara, baina bat-batean esaten dizu orban berriak azaldu direla eta, kontxo, “oso ondo nago, baina hor aktibitatea dago”. Zentzu horretan, istripuan besoa galdu zuen Irati Idiakezek zera esan zidan: “Guri besoa edo hanka falta zaigu, baina zurea ez da ikusten. Hori nola kudeatzen duzu?”. Hori kudeatzen ikasi egin behar da, ikusten ez diren gauza asko bezala.



Urteroko saritu guztien talde-argazkian oraingoan asko geratu ziren kanpoan, Coliseokoa amaitu eta berehala Errebal kaletik abiatu zen San Silbestre proban parte hartu zutelako euretako askok.

Eibarko Kirol Sarietako 29. edizioak urtea agurtu zuen

Gabon Zahar egunak ...eta kitto!-k antolatzen duen ekitaldia jaso zuen beste behin, gure herriko kirol klubek eta bertako kirolariek urtean zehar egiten duten lan guztia erre-konozitzeko asmoz. Jendeak ere erruz erantzun zuen bertan ondo merezitako sariak jaso zituztenei txalotuz. Guztira 31 sari banatu ziren, eta tartean izan ziren, kirol modalitate bakoitzekoekin batera, Sustapen eta

Euskara Sariak, jakina, Sari Bereziarekin batera. Azken kasu horretan, gainera, oraingoan beste ukitu bat ere izan zuen handiena den sari horrek, familian egindako lantaldearen eskuetara joan zelako. Ez zen falta izan modalitate berririk, hockeya kasu. Eta modalitate batzuetan, gimnasian edo igeriketan esaterako, taldeka jaso zuten saria. Bestalde, ekitaldiaren erdialdean, ODE talde jaio berriak hiru abesti kantatu zituen.



ODEko Oihane Zabala, Jon Alonso eta Garazi Aizpurua.



Hirukotearen debuta izan zen Gabon Zaharrekoa. MAITANE CAMPOS



Iñigo Egidazu, Imanol Egidazu eta Raket De Diego, Jon Iraola alkatearekin.
SARI BEREZIA



Mari Fran Arana, Ekaitz Juaristirekin.
EUSKARA SARIA



Iker Alfageme, Jon Osarekin.
ARETO FUTBOLA



Elene Arrazola, Markel Gutierrezekin.
ATLETISMOA



Iñaki Arrizabalaga, Ramon Telleriarekin.
ERRUGBIA



Mikel Casado, Maialen Insaustirekin.
ESKUBALOIA



Hodei Arrillaga, Mikel Larrañagarekin.
FUTBOLA



Esther Perez, Dioni Kortinarekin.
HERRI KIROLAK



Oier Ugarteburu, Bittor Ugartebururekin.
HIRU TXIRLO



Aiora Ballesteros, Arrate Gisasolarekin.
HOCKEY



Doha Srrhir, Hegoi Estebanekin.
JUDO



Alex Beorlegui, Rousse Garciarekin.
JUGGER



Jesus Castillo, Rafa Gallegorekin.
KARATE



Egoitz Rios, Asier Indarekin.
KICK BOXING



Rikardo Aranburu, Igor Etxabururekin.
MENDIA



Ugaitz Segurota, Ander Agirresarobekin.
PILOTA



Sergio Salgado, Alberto Ferreiroekin.
SQUASH



Iker Pacios, Ekaitz Juaristirekin.
TENIS



Abraham Bujedo, Andoni Ameztorekin.
TIRO OLINPIKOA



Enrique Guruzeta, Adrian Galanekin.
TRIATLOIA



Aritz Esnaola, Galder Lasuenekin.
TXIRRINDULARITZA



Jon Lapeyra, Eneko Escuderorekin.
URPEKOA



Iraide Sarria, Iñigo Laskurainekin.
WATERPOLOA



Amer Agbalou, Ramon Quina eta
semearekin.



Aitor Beorlegui, Jose Luis Gorostegirekin.
XAKEA



Juan M. Arroitaonandia, Patxi Lejardirekin.
SUSTAPENA



Antonio Sanchez eta Fernando Berriozabal, Casino Artista Eibarres-ekoekin.
BILLAR



Wilfredo eta Anderson Polanco, Unai Eizagirrekin.
SASKIBALOA



Ipuruako Oinarri Jubenil Taldekoak, Miriam Merinorekin
GIMNASIA ERRITMIKOA



Eibar Igerixaneko Junior Nesken Taldekoak, Edu Lopez Retarekin.
IGERIKETA



Aresatz Usobiaga, Andoni Ameztorekin.
ERREKONOZIMENDUA



Klubeko modalitate guztietako sarrituen talde-argazkia.
EIBARKO KLUB DEPORTIBOAREN MENDEURRENA

“Atletismoan bidea egitea zaila da, horregatik dira garrantzitsuak ikasketak”

IMANOL EGIDAZU ETA RAQUEL DE DIEGO • Eibarko Kirol Sari Nagusia



2024. urtea biribildu zuen abenduaren 31n Egidazu De Diego familiak Eibarko Kirol Sari Nagusia jasotzearekin. Imanol semeak aurrerapauso erraldoiak dihardu ematen atletismoaren munduan eta Raquel eta Iñigo gurasoen lana ezinbestekoa da hori horrela izateko. Izan ere, aita da semearen entrenatzailea eta amak berebiziko lanak egiten ditu atleta gaztearentzat testuinguru egokia eskaintzeko.

Negua lasai antzean hartuko du Imanol Egidazuk eta udaberritik aurrera lehiatuko da dekatloian. 19 urterekin, 23 urtez azpiko mailan arituko da aurten estreinakoz, baina horrek ez du kikiltzen. Kontrara, gogotsu dago bere maila erakusteko. Etxean antolatu duten goi-errendimenduko guneari buruz jardun dugu berarekin eta amarekin, aita ezin izan baita solasaldira etorri.

Zer izan da zuentzat 2024ko Eibarko Kirol Sari Nagusia jasotzea?

IMANOL: Demaseko meritua du sari hori eskuratzeak. Oso lagun gutxik lortu dute eta oso berezia da irabaztea. Oso pozik hartu dut.

Nolako izan da zuen 2024a?

IMANOL: Arlo pertsonalean ondo joan da, 2023aren antzera. Atletismoari dagokionez, urtero-urtero hobetzen noa. Aurreko urtean, 20 urtez azpiko Europako Txapelketan egon nintzen Jerusalemen, eta aurten Munduko Txapelketan egon naiz Perun. Mundiala ez zen ondo irten -lehenengo egunaren ostean erretiratu

egin zen intoxikazio batengatik-, baina bestela hobetzen joan naizela esango nuke eta 2025ean are hobeto ibiltzea espero dut.

RAQUEL: 2024an, gainera, Santurtzin ikasketak egin hasi zen eta horrek hainbat aldaketa ekarri zizkion, egoera horretara ohitu behar izanik. Bestalde, kirol arloan gauzak oso ondo joan dira. Adibidez, 20 urtez azpiko Espainiako bigarren markarik onena lortu zuen. Mundialean gertatutakoa pena izan zen, helburu ambiotsuagoak zituelako (adibidez, Espainiako errekorra lortzea), baina denboraldi ona izan dela esango nuke.

Imanol, Coliseon egin zenuen hitzaldian familiak egin-dako lana goraiatu zenuen. Zu lehiatzen zara, baina nolako garrantzia du gurasoek egindako lanak?

IMANOL: Egia esan, emaitzaren %90 atletaren esku dago, baina kontuan eduki behar da etxera iristen naizenean janaria eginda dagoela, amak gauza askotan laguntzen didala... Hori demasa da niretzat. Bakarrrik biziko banintz, etxeko gauzak nik egin beharko banitu, gurasoek hara eta hona eramango ez banindute, entrenatzaile gabe den-dena nik zuzentzen... askoz ere



zailagoa izango litzateke. Beraz, beste %10 hori oso garrantzitsua da.

Raquel, zuek nola hartzen duzue lan hori?

RAQUEL: Hasteko, sari hau jasotzea demaseko ezustea izan da niretzat. Etxean esaten dugun bezala, zein gurasok ez dio bere seme edo alabari laguntzen? Kirolean, musikan, dantzan ala edozein arlotan. Egia da dekatloiak asko eskatzen duela arlo logistikoan. Adibidez, 5 metroko luzera duten pertikak eraman behar ditugu lehiaketara. Beste arlo garrantzitsu bat elikadura da. Adibidez, lehiaketetan, atsedena duen tartetan oso garrantzitsua izaten da jatea eta hori bideratzen saiatzen naiz. Imanolek esan duen bezala, etxean gauza askorik egin ez dezala saiatzen naiz. Hori bai, batzuetan haserretu egiten naiz (barreak). Baina egia da klasetik etorri, jan eta berehala joaten dela entrenatzera. Egunero entrenatzen du eta Iñigo senarra da Imanolen entrenatzailea onera eta txarrerako, beraz, beste gauzez ni arduratzen naiz.

Zergatik onerako eta txarrerako?

RAQUEL: Batzuetan, entrenatu ondoren etxera itzul-

tzen dira eta, gauzak ondo joan badira, oso pozik datoz, baina gauzak gaizki irten badira, haserre etortzen dira, bakean laga behar zaie momentu batez eta Xabier beste semearekin batera bitartekotza egiten dugu. Biak dira burugogorrak (barreak).

Atleta askok Errendimendu Handiko Zentroetara jotzen dute, baina zuek etxean prestatu duzue horrelako zentro bat, moduren batean. Imanol, zuk nahiago duzu horrela izatea?

IMANOL: Bai, familiarekin egotea dut nahiago. Inoiz ez naiz Errendimendu Handiko Zentroren batean izan, baina lagunak ditut horrelako tokietan eta, ikusten dudanez, lagunekin zaude, baina ez etxean, eta azkenean ez da gauza bera: ez da janari berdina; entrenatzaileak konfiantzazkoak dira, baina ez dira zure gurasoak... Abantailak eta desabantailak dituzte zentro horiek, eta nik nahiago dut etxean egon.

Kontua da zuen egiteko moduak oso emaitza onak eman dituela orain artean.

RAQUEL: Bai, baina meritua Imanolena da. Azkenean, egunero lanean ari dena eta minarekin edo min gabe



lehiatzen dena bera da. Guk lagundu egiten dugu, lana erraztu, besterik ez.

Maila gorenean ari zarete. Horrek gehiago eskatzen dizue? Formakuntza gehiago, hobekuntzak bilatzea... Horri eustea ez da batera erraza izango.

IMANOL: Alebin mailan aita nuen entrenatzaile eta orain, 23 urtez azpikoetan, horrela izaten jarraitzen du. Alebinetan pentsatzen zuen 16 urtez azpikoetan lehiatzeko pixka bat gehiago egin behar genuela, eta lortu genuen. Aurrera egin ahal, horrela izan da, eta orain ere antzerakoa izango dela uste dut. Esfortzu gehiago egin beharko dugu, baina lortuko dugu.

RAQUEL: Denbora horretan Iñigo formatzen joan da, gauza berri asko ikasi ditu. Adibidez, entrenamenduak bideoan grabatzeko moduak bilatu dituzte gero, etxeko lasaitasunean, zuzenketak egin ahal izateko.

IMANOL: Bidea elkarrekin egin dugu eta elkarrekin ikasi dugu.

RAQUEL: Beste gauza on bat da Iñigo Imanolentzat bakarrik dagoela.

IMANOL: Zentzu horretan, batzuetan bai da aspergarria bakarrik entrenatzea, eta noizbait etortzen dira Eibar-ko batzuk nirekin entrenatzera, baina egia esan ohituta nago bakarrik entrenatzera, ia beti izan delako horrela.

RAQUEL: Onena da Imanolek argi duela zer nahi duen. Berarentzat ez da inolako sakrifizioa asteburuetan gauzez ez irtezea eta, agian, bere adineko beste norbaitentzat bai.

IMANOL: Argi daukat noiz ibili behar naizen serio entrenatzen eta noiz ibili naitekeen lagunekin irtetzen. Oreka eduki behar da. Ezin da urte osoan buru-belarri entrenatzen bakarrik ibili, baina ezta astebururo irtetzen ere. Oreka osasuntsua eduki behar.

Nola sartu zen atletismoaren hazia familian?

IMANOL: Aitak atletismoa egin zuen gaztetan eta etxean bideoak, garaikurrak eta abar ikusi nituen. Nire kasuan, txikitatik izan naiz nahiko bihurria, mugitua, eta ez nintzen motela. Lagunen artean azkarrena nintzen eta batek esan zidan atletismoan izena emateko. Horrela egin nuen eta gaur egunera arte.

RAQUEL: Gure etxean kirola beti egon da presente. Iñigo atleta izan zen eta nik eskubaloian egin nuen. Xabier eta Imanol semeek multikiroletan izena emateko aukera izan zutenean ez genuen zalantzarik eduki, izena eman behar zuten bertan egiten diren kirolak probatzeko eta, gero, eurek aukeratzeko zer egin nahi zuten. Imanolek atletismoa aukeratu zuen eta Xabierrek waterpolo. Eskubaloian egitea gustatuko litzaidake, baina tira (barreak).

Entrenatzailea izateaz gain, Iñigok atletismoan lehiatzen jarraitzen du. Zertan aritzen da?

IMANOL: Aurten entrenatzaile lanetan ibili da gehiago eta ez du denbora askorik izan bere probak prestatzeko, baina hor dabil Master mailan.

RAQUEL: Gaztetan 400 metroak eta hesi-lasterketak egiten zituen, batzuetan 300 metroak ere. Gero atletismoa laga zuen, semeak eduki genituen eta, urte batzuk

geroago, berriro hasi zen lehiatzen Master mailan eta hainbat domina irabazi ditu. 60m (pista estalian), 100m eta hesi-lasterketetan (100m eta 400m) aritzen da.

Imanol, zergatik hartu zenuen dekatloiaeren bidea?

IMANOL: Txikitan, Inma Urkiolarekin, atletismo proba guztiak entrenatzen nituen. Izan ere, alebin mailan ez genuen proba jakin bat bakarrik egiten, denak egiten genituen. Normalena da denak probatzea, eta gero proba batean espezializatzea; baina nire kasuan, abila nintzenez, Inmak denak egiten jarraitzeko gomendatu zidan. Egia esan, sasoi horretan ez nekien dekatloia zer zen ere.

RAQUEL: Proba guztietan oso ondo aritzen zen. Dekatletak atleta konpletoenak direla esan ohi da. Adibidez, iazko Europako Txapelketan ez zen dekatloia egitera joan, 400m hesi-lasterketa baizik. Ez da oso ohikoa atleta batek diziplina ezberdinetarako gutxieneko markak lortzea.

Imanol, dekatloian zein da zure proba kuttuna? Eta gutxien gustatzen zaizuna?

IMANOL: Hesi-lasterketa gustatzen zait gehien eta pisu-jaurtiketa gutxien. Hori egiten zait aspergarriena.

Dekatloian hamar proba egin behar dituzue. Proba batzuk beste batzuk baino gehiago prestatzen dira? Denak dira garrantzitsuak?

IMANOL: Proba guztiak prestatu behar dira. Agian, 1.500m-ko proba ez da prestatzen, serieak egiten dira, baina beste proba batzuetarako ere antzera egiten dugu (100m eta 400m, adibidez). Beste probetan teknika asko landu behar da, batez ere hesi-lasterketan eta pertika-jaurtiketan.

Zeintzuk dira 2025erako dituzuen helburuak?

IMANOL: Pista-estaliko txapelketetan ez naiz arituko. Orain dela egun batzuk heptatloian ibili nintzen, nolakoa zen ikusteko. Izan ere, 23 urtez azpikoetan gauza batzuk aldatu egiten dira (hesien tamaina, adibidez). Helburu nagusiena udan ondo egotea eta minik ez edukitzea da. 23 urtez azpikoen Europako Txapelketa egingo da eta bertan egotea gustatuko litzaidake. Joatearekin konformatzen naiz, baina gero pikatu egiten naiz eta seguru



dominaren bat lortzea nahi dudala (barreak). Aurretik, Euskadiko eta Espainiako txapelketetan lehiatuko naiz apirilean eta ekainean, hurrenez hurren.

Eta epe luzera zeintzuk dira helburuak?

IMANOL: Momentua bizi dut. Lagunek, hain emaitza onak lortzen ari naizela ikusita, Joko Olimpikoetara noiz joango naizen galdetzen didate, baina esatea erraza da eta egitea oso zaila.

RAQUEL: Joko Olimpikoetara joateko gutxieneko marka lortu arren, bertara joateko Espainiako Federazioak kuotak jartzen ditu eta aukerak murriztak dira. Hau da, oso ona izan behar zara tokia izateko. Momentuz txapelketa handietan egon da, eta garrantzitsuena momentu horietaz gozatzea da. Gero gerokoak. Atletismoan bidea egitea zaila da eta horregatik garrantzi handia ematen diegu ikasketei.



Adin guztietako jendeak hartzen du parte mendikoen irteeretan eta, naturaz gozatzearaz aparte, ez dirudi hain gogorra egiten zaienik.

Deporreko mendizaleek urte osorako irteeren egutegia prestatuta dute dagoeneko

Betiko bidetik, txangoetatik aparte, mendiarekin, naturarekin eta kirolarekin lotutako beste ekitaldi eta jarduerak batzuk ere eskaintzen ditu egitarau horrek. 2025ean 20 mendi-txango egingo dira eta, martxoan egingo diren Mendi Jardunaldiez eta urrian egingo diren Mikologia-koez gain, aurten Eibarko Mendi Itzulia ere egingo da ekainean, bi urtean behin egiten den proba. Deporreko ohiko irteerak zapatuetan izaten dira, normalean 08:00etan aterata: “Zeharbide horiek puntu batean hasi eta beste batean amaitzen dira, autobusa zain dagoen puntu batean. Orohar, irteerak egokiak dira 5 edo 6 orduz mendian ibiltzera ohituta dagoenarentzat. Hori dela eta, irteera horiek nolakoak diren jakin nahi dutenentzat, urte hasiera hau aproposa da auzartzeko proba egiten”. Klubaren ohiko irteeretan federatuta egotea gomendatzen da, eta txango batzuetan (Pirinioak, Europako Mendiak, etab.) baita derrigorrezkoa ere.

Egutegian “Herri Txikiak” ize-neko irteera multzoak presentzia berezia du, eta guztira 11 egingo dira. Herri txikiak lotzen dituzten txango originalak dira, eta Nafarroa eta Gipuzkoa zeharkatzen dituzte batez ere: “Bide berezi eta ederretatik, jende asko dabilen bideak saihestuko ditugu”. Maiatzean bi ibilaldi izango dira Nafarroan GR 322 bidean: ibilbideak Nafarroa Extreme probaren bidea jarraituko du zati batean, baina orain, korrika izan beharrean, oinez egingo dute.

Udaberriko eta udako giroa urrutia dauden lekuetara joateko eta mendi exigenteagoak egiteko aprobetxatzen da. Hor asteburuko lau irteera egingo dira, zailtasun maila desberdinekin. Pirinioetako ibilaldiak ezin dira falta, bi aldiz iritsiko baitira bertara: lehena Panticosa ingurura eta bigarrena Aran haranera. Beste bi asteburuak Kantabrian (Valle de Asón, Puerto Lunada) eta Burgosen (Peña Amaia, Melgar) izango dira. Egutegia osatzeko,

"Urte hasierak aukera polita eskaini dezake irteera bat probatu eta lagun berriak egiteko"

eta ohikoa denez, irteera bat dago aurreikusita sagardotegiko bazkariarekin eta beste bat kobazulo bat bisitatzeko.

Deporreko mendi batzordeak Elgoibarko Morkaiko Mendizale Elkartearekin eta Kalamua Korrikalari Taldearekin partekatzen du egutegi horretan agertzen diren irteera batzuen antolaketa. Horrez aparte, irteeren informazio guztia klubaren webgunean kontsulta daiteke edo egoitzan bertan eska daiteke poltsikoko egutegia paperean. Edozein zalantza argitzeko edo klubeko txangoei buruzko informazio gehiago jasotzeko, martitzen eta eguenetan ematen da arreta, 19:30etik 20:30era, eta baita 943201904 zenbakian ere.



Urtea hasteko Urkora igo zutenen artean, 2024an mendeurrena bete duen Klub Deportivoak ordezkaritza zabala izan zuen.



Aixola laga ondoren, Eibarko kaleak protagonista dituen San Silbestre berriak inoizko parte-hartzerik handiena izan zuen hirugarren edizio honetan.



Astelena frontoia Katedrala bihurtu zuten Gabon hauetan berriro bertan bildu ziren pilota zaleek, abnduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an frontoia lepo betez.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

SD EIBAR - Sevilla (bihar, 16:00)

Gizonezkoen 2. Maila

Eldense - SD EIBAR (etzidamu, 20:30)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Anguiano - SD EIBAR B (etzi, 12:00)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

SD EIBAR B - Real Sociedad B (etzi, 17:30)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Leioa - SD EIBAR C (etzi, 12:00)

Emakumezkoen Euskal Liga

Real Sociedad C - SD EIBAR C (bihar, 18:00)

Erregionaleko Gorengo Maila

Ikasberri - URKI (bihar, 17:30)

EIBARTARRAK - Ilintxa (bihar, 18:00)

Erregionaleko 1. Maila

Aloña Mendi B - URKI B (etzi, 16:00)

Jubenilen Nazional Liga

Durango - SD EIBAR B (etzi, 12:45)

Kadeteen Euskal Liga

Leioa - SD EIBAR (bihar, 11:00)

FUTBOI-ZAL ETUA

• BOJ - Garajes Garcia (bihar, 09:00)

• Xania Taberna - Bar Marem (bihar, 10:30)

• Baserri - Kalaka B. Aires (etzi, 09:00)

• Adahi Etxegi - Malape (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Eguzki - EIBARTARRAK (gaur, 20:50)

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR - Zaragoza La Jota (etzi, 12:00)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Beti Onak (bihar, 18:30)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

Egia Kosko - MEK EIBAR B (bihar, 18:00)

FRRUGBIA

Gizonezkoen Euskadiko Erregionala

Durango - EIBAR (bihar, 16:00)

SASKIBALOIA

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

ARTES. JUANTXO - Antigua (etzi, 16:15)

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR - Antigua Luberri (bihar, 16:00)

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Tecnun - EIBAR B (etzi, 16:00)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Nazional Maila

URBAT - Colegio Brains (bihar, 20:15)

Gizonezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Sestao - URBAT B (bihar, 20:15)

XAKEA

Gipuzkoako 3. Maila

EIBAR B - EIBAR C (bihar, 16:00)



GORKA ERRASTI

Gorrotatzea

Oso hitz potoloa iruditu zait beti gorrotatzea. Zerk eraman zaitzake zu bezalako beste pertsona bat gorrotatzera? Oraindik gutxiago gorroto hori beste pertsonaren ezaugarriren batengatik bada, izan jatorria, izan sexu orientazioa. Hau idaztean, hiztegia ari naiz begiratzeko gorrotatzearen sinonimoak eta denak dira gogorrak: higuindu, ezin ikusi, detestatu, hastiatu. Antonimoak ordea, sentitu izan ditut pertsonengatik: estimatu, preziatu. Zorteduna izango naiz, egon badaudelako pertsonak beste pertsona batzuk gorrotatzen dituztenak.

Lakuako Segurtasun Sailak argitaratutako Gorroto Gertakariei buruzko txostenaren arabera, 2023an, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan erregistratutako 281 gorroto delituen %64 (180) arrazistak edo xenofoboak izan ziren. Horien atzetik, %16 (45), sexu-orientazioaren eta identitatearen aurkako delituak daude.

Horregatik Eibarko Udalean gertakari arrazista, xenofobo, antigitano edota LGTBifobikoen aurrean jarduteko protokoloa martxan jarri dugu. Mezu arriskutsu askoren aurrean, zoritxarrez, horrelako tresnak beharrezkoak direlako. Pertsonalki gainera, harrotu nauen pausoa izan da, Eibar izan delako EAeko lehen udalerria horrelako protokolo aitzindaria onartzen eta, zergatik ez, gainontzeko herriei ere bidea apur bat ireki diegulako.

Protokoloak espazio publikoan eman daitezkeen gorroto gertakarien aurrean jarduteko tresna bat eman digu. Baina baita espazio birtualetan ere. Sare sozialak sortu zirenean gizakien arteko harremanak sustatzeko zirela esan ziguten. Baina denboraren poderioz, sare sozial batzuk gorroto-leku galantak bilakatu dira eta hobe bertara sudurrean pintza jarrita sartzea. Nola heldu gara honaino?

Gorroto gertakariaren bat bizi izan duzu edo ikusi duzu? Esaiguzu eta protokoloa aktibatuko dugu (Gizartekintza: gizartekintza@eibar.eus 943708440; Udaltzaingoa: udaltzaingoa@eibar.eus 943708424 – 092). Herritarrak horrelako egoeren aurrean antena izatera eta pertsonaei babes emango dien tresna bat badagoela zabaltzera ere gonbidatu nahi ditut. Gorrotorik gabeko Eibar baten alde.

“Eibarko Udalean gertakari arrazista, xenofobo, antigitano edota LGTBifobikoen aurrean jarduteko protokoloa martxan jarri dugu. Gorrotorik gabeko Eibar baten alde”



Irene Bastida Orbea
2024/12/25

Agur, amatxo,
goxo-goxo
lo gelditu zara.
Gure bihotzetan,
berriz,
beti bizirik.



- ETXEKOAK -
Jone, Naira, Oskar eta Amaia



Lucio Agirrebeña Arizaga
1930/12/22 – 2024/12/23

Senar, aita
eta aitxitzarik
onena izan zara.
Beti izango zaitugu
gogoan gure
bihotzetan. Faltan
botatzen zaitugu
dagoeneko.

ZURE EMAZTEA, SEME ALABAK,
BILOZAK ETA BIRBILOBA



Camilo Alvarez Otero

6. URTEURRENA
2019/01/12

“Zu joan zara, baina
ZUREGANAKO GURE
MATTASUNA ez.
Ez ditugu inoiz
ahaztuko zuk izandako
ilusioa eta bizipoza”



- ZURE EMAZTEA,
SEME-ALABAK ETA BILOBAK -



Fernando Eguren Elcoro

1. URTEURRENA
2024/01/13

“Zure maitasuna
eta zurekin egindako
barre algarak
goguan dauzkagu”



**ESKERRIK ASKO
AITXA/TIO/PITXINTXU**



Francisco Beristain Albizu “Patxi”

7. URTEURRENA
2018/01/12

“Zure bizipozak
eta alaitasunak
gugan diraute”



ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEKOAK -

BERE ALDEKO MEZA
egingo da hilaren 12an
(domeka), 12:00etan,
Karmengo Amaren elizan.



FUNEUSKADI
Funeraria

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Idazlearekin Harixa Emoten Arantxa Urretabizkaiarekin

Martitzenean, 19:00etan egingo du urteko lehen saioa Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurle taldeak, Portalean (Batzartokia 1-2). Juan San Martin Udal Liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean antolatutako literatur-solasaldian Arantxa Urretabizkaia hartuko du parte, Euskadi Literatura Saria eman zion *Bidean ikasia* bere liburuari buruz irakurleekin batera aritzeko. Ainhoa Aldazabalek zuzenduko du saioa.



“La fábrica de mi padre” dokumentalaren emanaldia

Armagintzaren Museoak 18 urte betetzen dituela ospatzeko, hilaren 16an (eguna), 19:00etan, *La fábrica de mi padre* dokumentala eskainiko dute Portaleko areto nagusian, dohainik. Mikel Toral eta Txutxi Paredesen lan honek, Mikel Alonsoren argazki-zuzendaritzapean, Bizkaiko azken industrializazioaren langile-klasearen historia errebindikatzeko du: “Oroitzapen zehatza eta historikoki ondo kokatua, protagonisten testigantza eta lan-munduko espezialisten iruzkinak jasotzen dituena”. Gainera, urtarrilaren 16, 17, 18 eta 19an Museora sartzea doan izango da.



Presoen pegatina-erakusketak gaur itxiko ditu ateak

Gaur itxiko dute Sare eta Euskal Herriko Pegatine-roen Elkartearen eskutik Topalekuan ikusgai dagoen presoen pegatina-erakusketa. Arratsaldeko 18:30etik 20:30era izango da ikustera joateko azken aukera. Euskal Herriko Pegatineroen Elkarte (EHPE) 2018an, Añorgako topaketa ostean egindako bileran sortu zen. Ekintza nagusia urteroko topaketa izaten da. Bertan kide guztiak elkartu eta pegatinak trukatzeko dituzte: “Ez dugu pegatinarik erosten, ezta saldu ere, gure filosofiaren kontra dagoelako. Guretzako pegatinak dokumentu historikoak dira, eta gure gizartearen aberastasuna adierazten dute. Horregatik, etxean pegatinarik edukiz gero, mesedez ez bota. Gorde eta gurekin harremanetan jarri”. Horretarako 676 119 422 telefono zenbakira deitu edo txoni17@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

Aratosteetako kartel-lehiaketara aurkezteko epea zabalik dago

Eibarko Udalaren Kultura Sailak 2025eko Aratosteetarako kartelaren lehiaketa-deialdia egin du. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 24ra arte egongo da zabalik. Lanak presentzialki edo elektronikoki aurkeztu daitezke. Aurrekoetan bezala, hiru kategoria egongo dira: 15 urtetik gorako kategoriako irabazleak 1.000 euro irabaziko ditu. 11 eta 14 bitarteko arteko irabazleak sari berezia jasoko du (dirurik ez), eta baita 10 urte arteko kategoriako irabazleak ere. Informazio guztia Eibarko Udalaren webgunean kontsultatu daiteke.





Alberto Ibañez eibartarraren lanak ikusteko azken egunak

Domekan, urtarrilaren 12an itxiko ditu ateak *Paisaia eta Aztarna*, abenduaren 13az geroztik Portalean dagoen pintura- eta eskultura-erakusketak. Paisaia-gaiekin bertan aurkeztutako pinturak eta eskulturak Nerbioi ibaiaren bokalean dagoen Abrako inguruaren behaketa etengabearen aztarna eta isla dira. Bertako industriak eta meatze jarduerak aldatu eta eraldatzen duen paisaia horrek, hain zuzen ere, Alberto Ibañez artista eibartarraren lana elikatzen eta inspiratzen du. Gaur, bihar eta etzi joan daiteke ikustera, 18:30etik 20:30era.



“Emakume baten borroka eta metamorfosia” antzezlan

Tanttaka Teatroak *Emakume baten borroka eta metamorfosia* euskarazko antzezlan taularatuko du urtarrilaren 18an, 19:00etan Coliseon. Fernando Bernuesen zuzendaritzapean, Eneko Sagardoi eta Vito Rogado aktoreak arituko dira oholtza gainean. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin) eta aurretik erosi daiteke, leihatilan edo Kutxabank-en bidez.



Golden Blend eta Letagin taldeen kontzertua ZaiZoin

Andoitz Fest izeneko rock jaia antolatu dute ZaiZoi tabernan biharko. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera Golden Blend eta Letagin taldeak arituko dira, eta sarrera doan izango da. Hiru bergararrek eta antzuolar batek osatzen dute Golden Blend. *Bonben Zaldunak* diskoa euskarazko eta ingelesezko hamaika abestik osatzen dute. Eta Letagin 2018. urtean Oñatin sortu zuten aurretik talde ezberdinetan ibilitako lau gaztek. 2020an atera zuten taldeari izena ematen dion lehen lana. 2022an *Danbaka Ekinez* saria irabazi ondoren grabatu zuten *Zurrunbilan* izeneko bigarren diskoa.

San Blas opilen ikastaroa

Aurreko urteetan izan duen arrakasta ikusita, Arrate Kultur Elkarteak San Blas opilen ikastaroa eskainiko du urtarrilaren 25ean, 11:00etan. Edurne Zenarruzabeitiak emango du, eta parte-hartzaileek 5 euro ordaindu beharko dute (Kultuko bazkideentzat doan izango da). Parte hartzeko izena eman beharra dago, arratekultu@gmail.com helbidera idatzita edo 638 284 912 telefonora deituta.




Mus-txapelketa jokatu da bihar Galiziako Etxean

As Burgas Galiziako Etxeak mus-txapelketa antolatu du biharko, 16:30ean. Edozeinek hartu dezake parte, eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du izena ematerakoan. Lehen tokian sailkatzen den bikoteak diru-bilketaren %60 eramango du, bigarrenak %25, hirugarrenak %15, eta laugarrenak ardo botila bat. Izena emateko Galiziako Etxeko tabernara joan edo WhatsApp-a idatzi 680 860 539 telefono zenbakira.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	9				3	
			6	8	2	
5	7	3	1		4	
	6	1	5			
	3			6		
		4	3	2		
6			3	1	4	9
4	3	7				
9				5		



soluzioa



soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	4	9				3	1	
				8				
1			3			7	6	
2	6	3				8		
		1				5		
5						3	4	2
5	8		6				1	
			5					
1	9					7	2	

**S
U
D
O
K
U**

**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**



Urtarrilak 10-16

ZAPATUA 11

URTEKO BATZARRA

11:00 Eibarko Txirrindularien Elkartearen urteko batzarra (bigarren deialdia **11:30**ean). Jarraian, ezohiko batzarra, presidente berria hautatzeko. Portalea (areto nagusia).

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30 Astelena Haur Parkea. Astelena frontoia.

MUS TXAPELKETA

16:30 Mus txapelketa irekia, bikoteentzat. Hainbat sari. As Burgas Galiziako Etxea.



KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gunea. Ipurua kiroldegia.

MUSIKA

19:00 Andoitz Fest. Golden Blend eta Letagin taldeen kontzertua. Doan. ZaiZoi taberna.



DOMEKA 12

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gunea. Ipurua kiroldegia.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinak Ipuruan. Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 13

KANTU SAIO IREKIA

19:00 Euskal kanta tradizionalak. Arrate Kultur Elkarte.



MARTITZENA 14

BIDEO-FORUMA

18:00/19:30 Emakumeen Istorioak: Hilma af Klint. Sarrera librea. Andretxea.

HARIXA EMOTEN

19:00 Euskarazko irakurle taldearen saioa, Arantxa Urretabizkaiarekin, "Bidean ikasia" liburuari buruz. Ainhoa Aldazabalek zuzenduta. Portalea.



EGUENA 16

ASANBLADA IREKIA

18:00/20:00 Etxegabetasunaren arazoari konponbidea emateko bokazioa duen END plataformaren asanblada irekia. Arrate Kultur Elkarte.

DOKUMENTALA

19:00 La fábrica de mi padre" (Mikel Toral eta Txutxi Paredes). Armagintzaren Museoa 18. urteurreuna ospatzeko antolatutako ekitaldia. Doan. Portalea.



FRAKUSKETAK

Gaur azken eguna:

- **PRESOEN PEGATINA ERAKUSKETA.** Sare eta Euskal Herriko Pegatineroen Elkarte. (Topaleku).

Urtarrilaren 12ra arte:

- **"INDALECIO OJANGUREN 1887-1972" argazki erakusketa.** (Portalea).
- **"PAISAIA ETA AZTARNA."** Alberto Ibañez. (Portalea).

Martxoaren 30era arte:

- **"EIBARKO ITSAS ABENTURA."** (Eibarko Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

PILOTA

- **10ean (BARIXAKUA)**
19:00 Ikastolako frontoia
San Anton Txapelketa: Promesa eta Senior mailetako finalerdiak



IDIPROBAK

- **11n (ZAPATUA)**
21:00 Sigmako probalekua
Urteberriko Idi Kintopekoen Saria



ERMUA

BOXEOA

- **11n (ZAPATUA)**
12:00 Orbe Kardinala plaza
Boxeo entrenamendu irekia eta erakustaldia



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **11n:** 19:45, 22:30
- **12an:** 20:00

“Parthenope”
DRAMA



2024/Italia/136'
Zuzendaria: Paolo Sorrentino
Protagonista: Celeste D. Porta,
Gary Oldman, Stef. Sandrelli
60. eta 70. hamarkadak

2 ARETOA

- **11n:** 17:00, 19:45, 22:30
- **12an:** 17:00, 20:00
- **13an:** 19:30

“Vivir el momento”
DRAMA



2024/Erresuma Batua/107'
Zuzendaria: John Crowley
Protagonista: Andrew Garfield,
Florence Pugh, Adam James
Erromantzea/Gaixotasuna

ANTZOKIA

- **11n:** 17:00 (2 Ar), 19:45, 22:30
- **12an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **13an:** 19:30

“Juego de ladrones”
AKZIOA



2025/AEB/144'
Zuzendaria: Christian Gudegast
Aktoreak: Gerard Butler, O'Shea
Jackson Jr., Jordan Bridges
Thriller/Hilketa/Sekuela

ANTZOKIA


- **11n:** 17:00
- **12an:** 17:00

“Klara eta hazi magikoak”
ANIMAZIOA



2023/Norvegia/70'
Zuzendaria: Will Ashurst
Komedia/Familian ikustekoak






XABALO
2024

F. Calbeton, 12 943096884

OKINDEGIA / GOZOTEGIA
TXUTXE-DENDA
JANARIDENDA TXIKIA



LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEBORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enbarguak etxera

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **IZASKUN**, astelehenian urtiak bete zenduaz eta. Musu haundi bat famelixa eta lagun partez.



Zorionak, **AINHOA**, gaur 11 urte beteko dozuz eta! Musu eta besarkada potolo bat famelixa guztiaren eta, batez be, amaxoren partez.



Zorionak, **AISER!** 24 urte bete dittu hillaren 9xan. Ondo pasa eguna, "largo"! Zure bikote eta lagun partez, besarkada bat.



Zorionak, **LIER**, hillaren 2xan 5 urte bete zenduaz eta! Jarraitu hain alaixa izaten! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **ANER**, martitzenian urtiak egin zenduaz eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Libe zure arrebar partez.



Zorionak, **ALICIA**, urtiak bete dozuz eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **UNAX**, hillaren 7xan 10 urte bete zenduaz eta!!!! Segi hain ona izaten. Familiaren eta, batez be, **ANAITZEN** partez.



365 EGUN IREKITA goizeko 05:00 entz gaueko 00:00 entz

- GUZTIZ EKIPATURIKO 900m²-ko gimnasioa
- INGURUNE PAREGABE batean giroturiko zentroa
- MAKINA, MATERIAL ETA EGITURA BERRIEKIN!!!

Etor zaitez probatzera! Matsaria, 32, 1-B
943 430 987



ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. 687163826.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako lanak egiteko eta osasun arloan jarduteko. 633101852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 632355103.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642431753.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 632768653.
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak goizez zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari bezala. Interna. 607784902.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642044618.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. 635944602.
- Neska eskaintzen da arratsaldean garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Esperientzia. 604120104.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. 641756213.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. 643505662.

- Emakumea eskaintzen da arratsaldean eta gauetan nagusiak zaintzeko. 642701710.

- LH ikasten diharduen neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. 688621149.

- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 643766267.

- Neska eskaintzen da arratsaldean eta gauetan nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari bezala. Baita asteburuetan ere. 673538021.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 643074369.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632844780.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632768653.

4.2. Langile bila

- Sukalde lanak egingo dituen esperientziadun pertsona behar da elkarte gastronomiko baterako. 620888320. Alex.
- Dekoratzaileria behar da Eibarko Urrategi-Interiorismon. 629437192.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrik ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrik ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Taberna baterako bigarren eskuko hotz-kutxa (izozkailua/arkoia) behar da. 629526032.
- Aulki bihur daitekeen ibiltaria eta barruko opari aldagarria saltzen ditut. 150 euro. 649105442. Elena.

6.4. Bestelakoak

- Telazko poltsa galdu nuen Bossa tabernan. Balio sentimentalak du. Bertan laga mese dez. 652716135.



Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

EIBAR / DURANGO MARTXOKO DEIALDIA

MATRIKULA EPEA Urtarrilaren 7tik 24ra arte

AZTERKETA	DATA	PREZIOA
PET FS	Martxoak 22 (larunbata) azterketa osoa	106 euro
FCE FS	Martxoak 22 (larunbata) azterketa osoa.....	195 euro
FCE	Martxoak 01 (larunbata) azterketa osoa.....	195 euro
CAE	Martxoak 22 (larunbata) azterketa osoa.....	205 euro

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83	DEBA:	English Square	648 26 82 06
	Idiomaster	943 79 07 84		North Street English	652 44 86 46
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53	DURANGO:	Ibaizabal Ikastola	94 621 58 77
EIBAR:	Link Idiomas	943 20 39 59	MARKINA:	Lea Artibai Ikastetxea	94 616 90 02
	Target Schools of English	607 83 36 13	ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32	HEBRIZ:	Speak up	94 622 52 94
ELGOIBAR:	Key Academia de Inglés	943 74 30 44	ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
	ILS	943 74 40 40	MATRIKUL:	Gogoz	943 60 43 58
OSATE:	Sounds Great	943 78 20 91			

Nola mugitzen zara Eibarren?



EIBAR



Euzko Legebiltzarra Foru Aldundia

Lagundu iezaguzu hobetzen!

Jakin nahi dugu hiria nola ikusten duzun, bertan nola mugitzen zaren, hiriaz nola gozaten duzun eta zer alderdi hobetuko zenukeen edo zer dagoen faltan, zure ustez.

Nola egingo dugu?

Horretarako, gonbidatzen zaitugu egingo den lantsalaoan parte hartzera.

Otsailaren 11n 18:30ean Errebal Plazan (A gelan).

Parte hartu urtarrilaren 26ra arte

Parte hartzeko beste bide batzuk:

- Ebe guztietara bidalitako **galdetegia** betez eta honako leku haueetan dauden boto-onizietan utziz (erakin publiko horietan galdetegia paperean ere egongo da):
 - PECORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.
 - Jubilatuen etxeak.
 - Portalea Kultur Etxea.
 - Eibarko Andretxea.
 - Juan San Martin Udal Liburutegia.
 - Indianokua gazteakua.
 - Ipurua, Orbea eta Unbe kiroldegia.

- Udalaren webgunean edo QR kodean eskutagarri dagoen **online inprimakia** betez.



Informazio gehiagorako: 688 73 61 36



Informazio gehiagorako:
688 73 61 36



UNBE



PADELPISTAK



ORBEA



IGERILEKUA



TENISPISTAK



SPA



ZORIONAK!
eta
2025.
URTE
Kirolari
ON!



EIBAR

Udala | Ayuntamiento